



Ikor KOTX

«Kontatu da zenbatek alde egin duten, baina ez da kontatu zer sentitu duten etxea eta herria uztean»

Herri bihurtu zaion deserrian hartu gaitu, urduri samar. Nerbio-so, Hendaiara-ko prestatu duen hitzordua berezia delako. Baina, nerbio-so, bere bihotzeko Athleticek partida garrantzitsua duelako ordu pare bat barru. Bai, futbolak pasio forma har dezake baita poeta eta idazle sentibera baten bihotzean ere.

Deserrietik, bueltaka-bueltaka jardun dugu hizketan herriaz, erbesteaz, alde egiteaz eta bueltatzeaz. Kiribilak marraztuz joan zena, utzi zuen herria, orain dena eta herri bihurtu zaiona lotzen dituen sokarekin. Jon Garmendia *Txuria* idazleak deserria kontatu nahi du gutxitan kontatu den lubakitik; penetatik eta pozetatik, barru-barrutik.

Izan ere, gehiegitan sentitu du hainbeste sufrimendu pilatu duen herriak deserria eta kartzela urtetan kontatzeko joera hartu duela, eta ez unetan kontatzekoa.

«Herri bihurtu zaidan deserria». Izenburu horixe jarri diozu emanaldiari. Zer da kontatu nahi duzuna?

Bidaia baten kontakizuna da nagusiki. Kantuen letrekin eta poesiekin kontatzen dudana bidaia. Eta bidaia hori niretzako zirkularra da, biribil bat da. Etxetik joaten zarenetik bueltaka-bueltaka zabiltza etxearen bueltan. Nik, etxetik joan nintzenean, pentsatzen nuen ez nintzela itzuliko inoiz. Hori pentsatu nuen eta hala jasoa daukat poema batean. Eta ni bezala joaten diren gehienek horixe pentsatzen dute, ez direla inoiz buelta-

JON GARMENDIA

«TXURIA»

IDAZLEA

Hendaiako Antoine d'Abbadie aretoan izango da kontakizuna gaur arratsaldean. Musika eta marrazkia lagun, erbestea deitzen den bidaia kontatuko du Jon Garmendiak sentimenduen artean irekitako zirrikituetatik.

amagoia.mujika@gaur8.info

tuko. Batzuk orain hasi dira bueltatzen, baina bueltatzen dena ez da inoiz joan den pertsona berdina. Nik bidaia hori kontatu nahi dut, nire aurretik eta nire ondoren askok egin dutena. Euskaldun askoren bidaia da.

Kontatzeko behar batetik sortu da emanaldia?

Segur aski. Bidaia horren inguruan modu zehatzean hitz egin izan delako. Hainbeste euskaldun joan dira, hainbeste euskaldunek alde egin du bere herri-tik, hainbeste urte eman ditu erbestean, hainbeste herrialde-tan egon da... Kontatu da zenbatek alde egin duen, baina ez da kontatu horiek nola alde egin duten, zer sentitu duten etxea eta herria utzi dituztenean eta zer sentitu duten bidaia horretan. Uste dut iheslarien istorioa ez dela termino sentimentale-



tan kontatu. Errelato bat egin da, baina bestelakoa.

Euria litrotan kontatzen da, eta, azukrea, kilotan. Eta Euskal Herrian askotan kartzela eta erbestea urtetan kontatu ditugu. Ohitu egin gara, gainera, kontatzeko modu horretara, akaso modu horretara ez duelako hainbeste min ematen. Baina nik sumatzen dut gauzak beste modu batera kontatzeko beharra. Niretzako, adibidez, ez da garrantzitsua noiz atera nintzen etxetik eta zein bide egin dudan ordutik, niretzat garrantzitsua da ihes horretan, bidaia horretan, nola sentitu naizen.

Iruditzen zaizu gatazka ez dela sentimenduen lubakitik behar bezain ozen kontatu?

Akaso bai. Ez da erraza, hala ere, neurria hartzea. Intimitatea noraino kontatu, nola helarazi jendeari sufritu duzunaren tamaina... Badago, gainera, lehen esan bezala sufrimendua urtetan kontatzeko joera, eta konparatzekoa. Kartzelan hogeitau urte egon denaren eta hamar urte egon denaren arteko sufrimendua konparatzea zilegi al da?

Eraiki dugun lubaki horretatik oso zaila da minak, ezinak, zalantzak, kezkak... finean, sentimenduak, kontatzea. Azala gogortu egin zaigu; kasik 30 urte kartzelan egon denari begira lau urte eman dituenarena gutxi iruditzen zaigu. Konparaziora joan gabe, iruditzen zait gauzak beste modu batera kontatzen hasi beharko genukeela. Dagoen askatasun galera handiena nahi duzuna ez egin ahal izatea da.

Ez duzu erbestea urtetan kontatu nahi, baina juxtu hamar urte bete dira etxetik joan zinela.

Juxtu hamar urte herritik kanpo, eta, tartean, kartzelan ere izan naiz. Eta urte horietan guztietan etengabe jaso ditut nire hausnarketak, burutazioak, sentimenduak, koadernoetan. Orain duela hamar urteko poemak irakurtzen ditudanean, askotan ez dut nire burua ezagutzen idatzi horietan, oso ilunak iruditzen zaizkit. Baina orduan hura nintzen. Gainera, duela hamar urte ez zen pentsatu ere

egiten erbesteratuek itzultzeko aukera izango zutenik. Eta oraindik asko daude itzuli gabe.

Eta itzultzeko aukeraz pentsatzen dudanean, badakit nire lagunak ez direla utzi nituen berdina, ni bezala haiek ere aldatu egin direla. Eta Euskal Herria ez dela utzi nuena. Urteotan jaso ditudan poema horietatik sortu zait bidaia barrutik kontatzeko beharra, nire poema batzuetan ez nintzelako identifikatzen. Hausturak, zalantzak, minak eta baita pozak ere jasotzen saiatu naiz. Baita pozak ere, nik askotan esaten baitut herritik urrun, herri bat topatu dudala, eskuak zabalik hartu nauena. Dese-rrian, bidaia honetan, zurrunbilo honetan, etengabe sentitzen ari zara, eta hori jaso nahi izan dut emanaldian.

Zure idatzi zenbaitetan ez omen duzu zure burua ezagutzen. Abiatu zena eta orain zarena ez dira berdina, ezta?

Askotan erabiltzen den esapidea da: «Ez zaitetz aldatu». Ez da nire gustukoa. Alderantziz, jendea-ri aldatzeko eskatu beharko genioke, guztiok gaudelako etengabe aldatzen. Nire ustez zirkunstantziek aldatzen dute pertsona, eta hala behar du gainera.

Primizia modura esango dizut emanaldia Xabier Leteren kontakizun batekin abiatuko dudala. 2005eko neguan, kartzelan nengoela, sekulako ezustea jaso nuen: Xabier Leteren gutun bat. Eta ni asko markatu nau gutun horrek. Xabier Letek nabarmen-tzen zidan bere eskutitzean per-sona bat bere zirkunstantziek egiten dutela. Bizitzen duenak bere izaeran daraman horrek baino gehiago markatzen duela pertsona. Hitz horiek oso pre-sente izan ditut beti, eta garrantzitsuak izan dira niretzat. Ni, zirkunstantziek egin naute, zalantzarik gabe.

Deskubritu dut, esaterako, mundua ezagunez beteta dagoela. Nire amak esaten du mundua ezezagunez beteta dagoela, eta nik esaten diot ezetz, ezezagunak direla ezagutzen dituzun arte, eta, gero, horietako asko la-gun bihurtzen direla. Ipar Euskal Herriaz nuen ikuskera,

«Euria litrotan kontatzen da, eta, azukrea, kilotan. Eta Euskal Herrian askotan kartzela eta erbestea urtetan kontatu ditugu. Gainera, ohitu egin gara kontatzeko modu horretara»

«2005eko neguan, kartzelan, Xabier Leteren gutun bat jaso nuen. Askok markatu naute bere hitzek eta horrekin hasiko dut emanaldia. Letek nabarmen-tzen zidan pertsona bat bere zirkunstantziek egiten dutela»

esaterako, erabat aldatu da. Etxean bezala sentiarazi naute lehen ezezagunak ziren eta orain lagunak direnek. Finean, iheslariak zer gara ba? Silueta beltz batek ordezkatu gaituen ezezagunak. Ezezagunak gara pakete bereko zenbaki bezala hartu gaituztelako. Baina izen-abizenak, istorio propioak eta poz eta min propioak ditugu.

Zirkularra omen da zure kontakizuna, herriaren eta etxearen bueltan eraikitako biribil horretan harrapatuta bazeunde bezala.

Azkenaldian zirkuluaren ideia-ekin nabil bueltaka. Esaten da bi punturen arteko distantziarik laburrena lerro zuzena dela. Ni ez nago ados. Bi punturen arteko distantzia norainokoa den denborak markatzen du. Eta horri buruz arituko naiz emanaldian. Eta urruntasunaz ere arituko naiz. Nire ustez, urruntasuna ahanztura da.

Kartzelan nengoela lagun batek galdetu zidan ea zeren hutsunea sumatzen nuen gehien, eta nik esan nion eskuko telefonoarena. Tontakieria iruditu zitzaion, baina niretzako ez zen. Telefonoa eskura duzunean badakizu jendea zurekin akordatu den edo ez; dei bat, mezu bat... telefonorik ez daukagunean ez dakizu inor zurekin gogoratu ote den. Ez da oso poetikoa, baina egia da.

Bidaia biribil horretan, zer izan da zuretzako hitza? Zer garrantzia dute zure koadernoek?

Hitza aberria izan da niretzako, zalantzarik gabe. Erbestearekin itzaltzen zaizkizu ordura arte buruan zenituen bizitza proiektu guztiak. Erbestean beste pertsona bat izaten hasi behar duzu, eta hor dator aldaketa, beste bizitza bat hasten da.

Egoera horretan, idaztea niretzako salbazioa izan da. Nengo-en tokian, eta, aldi berean, egon nahiko nukeen tokian egoten ikasi dut, eta horrek zerbait piztu du nire baitan, eta nire koadernoan jaso dut hori guztia. Beti daukat koaderno bat ondoan. Korapiloak askatzeko mane-ra bat da idaztea.

Idatzitakoa oso barrutik datorrenean, gorputzaldia bera aldatzen zaio idazleari. Askotan idatzi duzu barrez edo negarrez?

Egia da idaztea salbazioa denean, gertatzen dela sentimendu guztiak mugitzea idazten hasi ordutik. Esaterako, nire amarekin lotura oso berezia daukat eta eskutitz harreman polita egin dugu urteotan, eta segitzen dugu horretan. Eta egia da amari idazten diodanean oso barrutik aritzen naizela, zuk diozun bezala gorputzaldia aldatzeraino. Eta negar eta barre egin izan dudala idazten. Oso sentsazio berezia da hori.

«Herri bihurtu zaidan dese-rria» ikuskizuneko hitzak ere oso barrutik hartuak izan al dira?

Kontatuko ditudan guztiak benetan gertatutako istorioetatik abiatutakoak dira. Urteotan pilatzen joan naizen gertakizunak dituzte abiapuntu. Hortik aurrera, oreka bat topatzen saiatu naiz sentimenduen eta interesgarria gerta daitekeen kontaketa baten artean. Ea lortzen dudana.

Zure korapilo horietako asko idatzi dituzun abestien letratan daude. 120 inguru dituzu erregistratuta. «Esne Beltza» da zure erakusleaho nagusia, baina badira gehiago. Egon ez zaren plazetan eta festetan egon dira zure hitzak.

Egia da nire letrak ni egoteko manera bat izan direla. Baina ez daukat nire letraren jabetza sentimendu izugarria. Nik letrak egiten ditut, baina hortik aurrera abesten dituenarenak eta gozatzen dituenarenak dira zalantzarik gabe. Orain Esne Beltza taldearen disko berriarekin ari gara. Nik badakit gure jarraitzaileen gehiengoak 15 eta 20 urte bitarteko gazteak osatzen dutela. Niretzako sekulako ariketa da gazte horiek identifikatuak sentituko diren letrak egitea. Era berean, letra horiek ez naute ni aspertu behar, ez zaizkit azalekoak iruditu behar... hemendik hamar urtera balioa izaten segitu behar dute. Ez da erraza, sinpletasunean baitago zailtasuna.



Ikor KOTX

Niretzako letrak egitea nire herrian presente egoteko manera bat da, kontatu nahi dudana kontatzeko tresna bat... eta sekulako ilusioa egiten dit gure abesti batzuk betirako izango direla ikusteak.

Esne Beltza aipatu duzunez, ezinbesteko oholtzakidea zen Xabier Solano musikaria proiektu berri honetan, ezta?

Zalantzarik gabe. Hogeitazko urte daramatzagu elkarrekin mila proiektutan. Ezagutu nuenean, mutiko koxkor bat zen. Trikiti mundiala izan berri zen Erroman eta Jon Mari (Beasain) eta biek irabazi zuten. 14-15 urte izango zituzten. Igande batean Hernanin topatu ginen eta niregana gerturatu zen esanez bazekiela bertsolaria nintzela eta idazten aritzen nintzela. Bere aitak esan omen zion. Eta esan zidan bera musikaria zela eta letrak behar zituela. Eta nik galdetu nion ea zer abesti zuen. Eta berak erantzun zidan ez zuela abesti bat, mordoa zituela eginak. Harrituta geratu nintzen. Horrela ezagutu nuen eta ordu-

«Ikuskizuna Hendaian aurkeztea garrantzitsua zen niretzat, gure herriaren existentzia ukatzen duten inperioek han sortu zutelako muga, alde batekoak espainiar bihurtzeko, eta, bestekoak, frantses»

tik elkarren bueltan daramatzagu hogeitazko urte.

Lagunez inguratu nahi izan duzu «Herri bihurtu zaidan deserrria» nolakoa den kontatzeko.

Bai, egia da. Diseinua, esaterako, Alejo Morenok egin dit. Oso identifikatuta sentitzen naizen txarrantxaren irudia erabili du. Bereizi egiten zaitu, harrapatu, mina egiten dizu eta sustraiak ditu txarrantxa horrek. Alejok egin duen irudia garrantzitsua da niretzako.

Xabier Solanoz gain, Keu Agirretxea musikaria ere arituko da. Ibilbide luzea eta anitza duen musikaria da eta oso gustuko dut bere sentiberatasuna. Plazera egiten zidan bera egotea. Perkusioan, berriz, Xabi Azkarate arituko da, Esne Beltza taldearekin askotan aritu dena, eta, berean, aparta dena.

Biolina Ortzi Oihartzabalek joko du. Euskadiko Orkestran aritzen da, Uztaritzekoa da eta gurasoa da Donibaneko ikastolan, ni bezala. Harremana dugu eta ilusioa egiten dit Ortzik parte hartzeak. Eta Eider Eibar ilus-

tratzailak zuzenean marraztuko du emanaldian zehar, zuzenean sortuko du gure poesiaren eta musikaren harira.

Egia esan, lagunez inguratu naiz, kapritxoz egindako emanaldia da. Gero, negura begira, buruan daukagu formatua pixka bat zabaltzea, bertsolariren bat sartzea –Sustrai Colina eta Odei Barroso prest daude–, beste artista batzuek ere parte hartzea... Espero dut emanaldiak bide egitea aurrerantzean ere, baina hori guztia zehazteko dugu oraindik.

Estreinaldia Hendaian izango da, Antoine d’Abbadie aretoan. Ez da kasualitatea.

Ikuskizuna Hendaian aurkeztea garrantzitsua zen niretzat, gure herriaren existentzia ukatzen duten inperioek han sortu zutelako muga, alde batekoak espainiar bihurtzeko, eta, bestekoak, frantses. Sorterria utzitako euskaldun askok iragan izan dute muga hori, eta, behin pasata, lehen arnas hori ordura arteko desberdinena izaten da, batetik torturaren mamua atzean utzi

duzula sentitzen duzulako, eta, bestetik, etxea urrun, oso urrun utzi duzulako eta ez zarela itzuli pentsatzen duzulako.

Azkenik, milaka jenderen ihesaldiaren igarobidea ere bada Hendaia, sufrikario eta drama anitzen testigu isila. Afrikako gosete, egarri eta ezinbiziei ihesi joandakoen Europarako sarbide, itxaropenaren eta etsipenaren aldi bereko bilgune. Emanaldiaren estreinaldia Hendaian izateak badauka niretzako bere pisu sinbolikoa.

Hango eta hemengo lagunak gonbidatu dituzu, eta aspaldi ikusi gabekoak ere espero dituzu. Erbestean dagoena ohitu egiten al da aspaldi ikusi gabekoak ikusten?

Segur aski, bai. Topatu izan ditut lagunak asko espero gabe eta sekulako pozez hartu izan ditut. Eta, beste batzuetan, epe-lago. Ikasi dut lagun on bat utzi zenuen toki berdinean topatzen duzula urte askotara. Hor ez dago distantziarik. Konfiantza berdinarekin hitz egiten diozu, konplizitate berdinez.